


MARGUERITE DURAS

**korridorean
eseritako
gizona**

Itzulpena: L. Alfonso López

(Edo...)



La

Voyeuse

-a




Jatorrizko izenburua: *L'homme assis
dans le couloir*

© 1980 by Les Éditions de Minuit

Lehenengo argitaraldia Tusquets
argitaletxean:
1983ko apirilean [gazteleraz]
(*La sonrisa vertical*) izeneko bilduman

Euskarazko lehen argitaraldia: 2021
Itzulpena: Luis Alfonso López
Diseinu & Konposizioa: LaL
Euskal Herrian inprimatua



Korridorean eseritako gizona

Gizona eserita izango zatekeen korridoreko itzalean kanporantz irekitako atearen aurrean.

Harengandik metro gutxitara harrizko bide batean etzanda dagoen emakume bati begiratzen dio. Haien inguruan bada lorategi bat malda latz batez zabaldi batera erortzen dena, zuhaitz gabeko muino luzeak, ibai bat inguratzen duten zelaiak. Ibairainoko paisaia ikusten da. Gero, oso urrun, eta zerumugaraino, tarte lauso bat, beti lanbrotsua den eremu ezin zabalago bat

zeina itsasokoa izan baitzitekeen.

Emakumea pasieran ibili zen aldapako gandorretik ibaiaren aitzi-
nean eta gero itzuli zen orain den
honetara, korridorearen aurrean
etzanda, eguzkitan. Berak, berak ez
du gizona ikusterik, udako argiaren
itsudurak etxeko barne itzaletik
bereiztua dauka.

Beraren begiak erdi irekita ala
itxita dauden ezin da esan. Atsede-
na hartzen ari dela badirudi. Eguz-
kia gogorra da jada. Jantzia du
soineko argi bat, zeta argizkoa, au-
rre aldetik urratua, bera ikustea uz-
ten duena. Zeta azpian gorputza bi-
luzik zegoen. Distira galdutako
soineko zuria izango zatekeen
agian, antzinakoa.

Horrela egingo zukeen batzue-

tan. Batzuetan ere, guztiz ezberdina den beste modu batez. Ezberdin beti. Hori da berarengan ikusten dudana.

Ez zukeen ezer ere esango, ezer ere ikusi. Korridore ilunean eseritako gizonaren aurrean, bere betazalen azpian da itxia. Horietan zehar zeruko argi nahasia antzematen du. Badaki gizonak so egiten diola, dena ikusten duela. Begiak itxita badaki hori nik dakidan bezala, neuk begiratu egiten dudana. Ziurtasun bat da.

Antzeko laxokeriaz ordu arte erdi tolesturik utzitako hankak biltzen dituela ikusten dut, mugimendu kontziente eta neketsu batez estutzen dituela. Hain gogorki

hersten ditu ezen gorputza deformatu egiten baita eta bere ohiko bolumena piskaka galdu egiten den. Eta gero ikusten dut bat-batean esfortzua amaitzen dela eta, berarekin batera, mugimendu guztia. Hona hemen supituki gorputzak behin betiko irudi baten zuzentasuna baduela. Besoaren gainean burua etzanda, lo era horretan immobilizatu egin da. Berari buruz isilik dagoen gizona.

Haien aurrean, ibaira jotzen duten muino luze aldaezinak. Hodeiak agertzen dira, denak batera doaz, elkarren atzetik ari dira moteltasun erregularrez. Ibai ahoaren norabidean doaz zehaztugabeko eremu ezin zabalagorantz.

Haien itzal ilunduak meheak dira, zelaien gainetik, ibaiaren gainetik.

Zabaldegiko etxetik ez da hotsik iristen.

Emakumea berriro mugitzen hasia izango zatekeen. Begiratzen ari den gizonaren aurrean, motel eta luze egingo zukeen. Korridore ilunean argia irensten duten begien urdinak, badaki ongi asko, bera zulatu egiten du. Orain, hankak altxatu eta gorputzaren gaineratik bereizten dituela ikusten dut. Bildu dituen bezala egiten du orain, mugimendu kontziente eta neketsu batez, hainbesteko indarrez ezen bere gorputza, aurreko unearen kontrara, bere luzeran mutilatua agertzen den, deformatua

itsustasuna litekeeneraino. Berriro ere immobilizatzen da horrela irekia beraren aurrean. Burua oraindik ere gorputzetik alderatua, besoaren gainean etzanda. Orduz geroztik jarrera lizun, basati horretan geratzen da. Itsusi bihurtu da, itsusia baledi izango zatekeen hori bihurtu da. Itsusia da. Egun, han da, bere itsustasunean.

Ezpain aldebanatuen artean sexuaren barrendegia ikusten dut eta haren inguruan gorputz osoa txunditzen dela gero eta gehiagora doan kiskaldura batean. Ez dut aurpegia ikusten. Edertasuna ikusten dut igeri, dudakor, aurpegiaren inguruan, baina ez dut lortzen honekin batu dadin beraren bihurtzearren. Bere obalu desbide-

ratua baizik ez dut ikusten, planua garbi oso, tenkatua. Begi itxiok berdeak behar luketela izan uste dut. Begiotan gelditu egiten naiz. Nereak direnetan denbora luzean edukitzen lortzen badut ere ez didate aurpegiaren osotasuna ematen. Aurpegiak ezezagun irauten du. Gorputza ikusten dut. Osoa ikusten dut hurbiltasun bortitzez. Izerditan blai dago, zurtasun itzelezkoa den eguzki klartasun batean dago.

Gizonak itxarongo zukeen oraindik.

Eta gero emakumea helduko zatekeen. Hain gogorra da eguzkiaren indarra ezen horri eusteko oihu egiten baitu. Hozka egiten dio jada urratua den soinekoaren

beso aldeari eta oihu egiten du.
Izen bat ahoskatzen du. Eta etor
dadila.

Norbait badabilela aditzen
dugu hark eta biok. Gizona mugitu
egin dela. Korridoretik irten egin
dela. Nik ikusi eta esan egiten diot.
Mugitu egin dela, korridoretik ir-
ten dela. Bere mugimenduak ha-
sieran tupustekoak, motzak direla,
ibiltzen jakingo ez balu bezalakoak
eta gero motelak bihurtzen direla,
oso motelak, gehiegizko motelta-
sunezkoak. Badatorrela. Hor dela.
Berarengandik haratago, ibairantz
so egiten duten begien urdin
kolorea ikusten dudala.

Gizona emakumearen aurrean
gelditu da, itzal egiten du haren for-

maren gainean. Betazalen artetik, argi ilundura somatu behar du, haren gainean goititzen den gorputzaren forma altuaren itzala non harapatua den. Kiskaldura-etenak badakar soinekoari itsasitako ahoaren lasaitzea. Gizona hor da. Emakumeak, begiak oraino itxirik, soinekoa askatzen du, besoak itzultzen ditu gorputzaren luzerari buruz bere aldaken fluxu artetik, hanketako tartea aldatzen du, gizonarenganantz okertzen ditu beraz are gehiago ikus dezan, harengan bere sexu arrakalatuak ikusia izateko neurririk handienekoan baino gehiago ikus dezan, beste gauza bat ikus dezan, baita ere, aldi berean, beste gauza bat harengan, harengandik gaintzen den aho okakor antzekoa, erraietakoa.

Gizonak itxaroten du. Emakumeak begi itxitako aurpegia itzalerantz darama eta bertan itxaroten du ere bai. Orduan, aldi berean, gizonak ekiten dio.

Lehendabizi ahoaren gainean. Zirristadak ezpainetan, eskainitako hortzetan jo du, begiak eta ilea zipristintzen ditu eta gero gorputzetik jaisten da, bularrak gainezkatzten ditu, motela jada isurtzean. Sexura iristen denean berrindartu egiten da, bere berotasunean urtzen da, nahastu egiten da haren jariakinekin, haguna, eta gero ihartu egiten da. Emakumearen begiak erdi irekitzen dira begiradarik gabe eta berriro ixten dira. Berdeak.

Hitz egiten diot eta gizonak egiten duena esaten diot. Berau zer-

tan den esaten diot ere. Ikus dezan, hau da nahi dudana.

Gizonak, bere oinarekin, emakumearen forma birarazten du harritzko bidetik. Aurpegia lurraren kontra dago. Itxaron egiten du eta gero hasten da berriro, gorputza harat honat ibiltzen du, basakeriari nekez eutsita. Zenbait segundu ematen ditu geldirik lasaitasuna berreskuratzearren, gero hasten da berriro. Gorputza urruntzen du harengana hurbiltzeko gero leuntasunez. Gorputza otzana da, moldekagarria, tratu horietara eskaintzen da kordegaberik bailitzan, haiek sentitu gabe esango genuke, harrien gainetik itzulikatzen da eta iristen den lekuan gelditzen da mugimendua geratzean harturiko posean.

Bat-batean hori eten egin da.

Forma hori hor da, zarpail, ha-
rengandik urrun. Gizonak so egin
eta hurbildu egiten da. Orduan,
harat honat birarazten jarraitzeko
prest balego bezala, gizonak bere
oina haren gainean jartzen du eta
bat-batean gelditu egiten da.

Bere oin biluzia jarriko zukeen
formaren gainean ausaz, bihotz al-
dera, eta bat-batean geldituko zate-
keen. Bularren haragia leun eta epe-
la da, bertan harrapatua geratzeko
modukoa. Gizona ez da mugitzen.

Burua altxatu eta ibairantz be-
giratuko zukeen. Eguzkia finko eta
gogorra da. Gizonak arreta handiz
ikusi gabe haren aurrean agertzen
denari begiratzen dio. Zera badio:

— Maite haut. Hi heu.

Oinak gorputza estutuko zukeen.

Tarte bat zabaltzen da, badu eremu zabal neurrigabearen batasun hori. Gizonak ez zukeen beldurrik sentituko. Bere begien aurrean agertzen denari ikusi gabe jarraitzen du begiratzen, argiaren liluramendua, aire dardartia.

Emakumea haren azpian da, arreta guztiz, antza, gertatzen ari denari. Keinurik gabe, ahoa jantziaren zetan geldiriko besoari atxekia, progresioaz ohartua izango zen, oinaren presioa bihotzaren gainean. Begiak berriro itxiak ziratekeen erdi ikusitako berde kolorearen gainean. Oin biluziaren azpian zingira bateko lohia badago, irakinaldia, gorra, urruna, etengabea. Forma de-

seginda dago, ahul, puskatua bezala, inertzia ikaragarri batek joa. Oinak gehiago sakatzen du. Hondoratu egiten da, bular kaiolara iristen da, sakatu egiten du oraindik ere.

Emakumeak oihu egin du. Gizonak oihu bat aditu du. Oihua gelditzen ez dela aditzeko astia badu, baita ahuldu egiten dela aditzeko ere. Eta hautatzeko betarik oraindik ere baduela uste duen bitartean, oina duda mudan da, eta astun gorputzetik askatzen da, bihotzetik aldentzen da oihuaren eraginpean.

Gizona berriro jausiko zatekeen korridore iluneko besaulkian.

Emakumearen hankak bereiziak ziratekeen eta berriro ere eroriak, indargetuak. Gorputza birarazten du bere baitan, oihu egiten du

berriro ere eta, izu-ikara luze eta motelen artean, borroka egiten du. Bere ahuenak oihu eta negar egiten du, deiadar egiten du berriro libratzearen alde, etor dadila, eta bat-batean gero, eten egiten da.

Eguzkia gizonaren gerri aldean izango zatekeen. Bere forma korridorean ikusten dut, itzalpean da, ia inongo kolorerik gabe. Bere burua besaulkiko bizkarraldean erori da. Maitasunak eta desirak leher eginda dagoela ikusten dut, izugarri zurbil dagoela eta bere bihotzak gorputz osoaren gainazalean taupadatzen dela. Ikusten dut dardarka ari dela. Ikusten dut korridorearen aurrean hark begiratu ez eta halere igarri eta ikusi egiten dena, muino eder horiek ibaiaren

aitzinean eta mugagabeko zabalgu-
ne malba hori lanbroan beti mur-
gildua itsasokoa izan beharko zate-
keena. Zabaldiko biluzgarritasuna,
euriaren norabidea itsasoarena be-
harko zatekeen izan. Eta horren in-
dartsua den maitasun hori. Badakit
jakin, maitasun indartsu honetaz.
Itsasoa da ikusten ez dudana. Gizo-
nak eta emakumeak ikusgai duten-
arenetik haratago dagoela badakit.

Gizonak harri bideko arima he-
rratua harengana hurbiltzen ikusiko
zukeen.

Emakumea une batez ateko lau-
kian geratuko zatekeen korridoreko
freskurara sartu baino lehen. So e-
gingo ziokeen. Arestian bera beza-
la gizona orain horren aurrean izan-
go zatekeen begiak itxirik. Bere es-

kuak geldirik daude jarlekuaren besoetan. Ehun urdinezko galtza jantziko zukeen, jantzia du, zeina ireki baitu eta nondik hori, sortzen baita. Forma arrunt eta basa bere bihotza bezalakoa. Bihotza bezala taupadatzen da. Lehen aroetako forma, harrietatik, likenetatik ezberreitua, antzina-antzinakoa, gizonarengan ezarria eta zeinaren inguruan hark ihardukitzen baitu. Zeinaren inguruan malko mokoan baitago eta oihu egiten duen.

Emakumeak gizonari hitz egiten diola aditzen dut.

—Maite haut.

Honek badakiela erantzuten diola aditzen dut:

—Bai.

Emakumea mugitu egiten dela eta gizonarengandik aldentzen duten hiru urratsak egitear dagoela ikusten dut. Gizona, ihes egiteko keinua egin eta, besaulkian atzera erortzen dela ikusten dut ere. Gero egintzak besterik ez dut ikusten.

Emakumea bere ondora heldu da, haren zangoen artean kokorikatzen da eta horri begiratzen dio, horri bakarrik, bere gorputzaz horren inguruan egiten dion itzalean. Arretaz erabat biluzten du. Jantzia bereizten du. Barnealdeak ateratzen ditu. Horrengandik apur bat aldentzen da, argitan jartzen du.

Gizonak burua jaitsi eta horixeri so dagoela ikusten dut, emakumearekin batera beraren ikuska-

riari so egiten dio. Bihotzaren erritmoko joalditan ari da taupaka. Hori bera estaltzen duen azal leunaren pean odolaren azpilan iluna zabaltzen da. Gozamenez gainezka dago, atxiki dezakeena baino beteagoa eta horren tinko bere baitan bihurtua ezen batek eskuz ikutzeaz duda egiten duen.

Gizonak eta emakumeak elkarrekin batera so egiten diote. Bitartean ez dute inolako keinurik egiten eta bere horretan uzten dute oraindik.

Haiengandik haratago zuhaitzik gabeko lurraldea dela ikusten dut, iparraldekoa. Itsasoak geldi eta epela beharko zukeela izan. Bero argia da ur kolorgetuetakoa.

Hodeirik ez dago jada muinoen gainean, baina oraindik ere laino urrun horrek jarraitzen du. Haren baitatik ihes egiten duen lurraldea da, behin eta berriro ere ikusten dena, sekulan ere gelditzen ez den mugimendua, sekulan ere amaitzen ez dena.

Emakumea astiro hurbilduko zatekeen, ezpainak ireki eta, supituan, gizonaren soin atal ezti eta leuna osoki hartuko zukeen. Ezpainak itxiko zituzkeen horren hasiera markatzen duen azpilduran. Ahoa bete egingo zukeen. Horrenbestekoa da gozaldia ezen malakoak begietara baitatozkio gizonari. Ikusten dut ezer ez dagoela gozamen hau bezain indartsurik ez

bada horren kontra atentatzeko debeku formala. Debekatua. Emakumeak ezin dio hobeto heldu baizik eta kontu handiz laztanduz mingainarekin bere hortzen artean. Ikusten dut zera: gogoan eduki ohi den hori berak ahoan daukala, gauza arrunt eta basa hori. Gogoan klikatu egiten du, horretaz elikatzen da, gogoan asetu egiten da. Krimena bere ahoan den bitartean, gidatu besterik ezin du egin, gozamenara gidatu, hortzak prest. Bere eskuekin heltzen, itzultzen laguntzen dio. Baina antza denez, horrek ez daki itzultzen jada. Gizonak oihu egiten du. Eskuak emakumearen ileari helduak direlarik toki hartatik aldentzen saiatzen da, baina indarrik ez du jada eta be-

rak, emakumeak, ez du utzi nahi.

Gizona. Buruak gorputzari ihes eginda intziri egiten du, jeloskor eta emanda. Bere auhenak badatorrela oihukatzen du, heldu egiten dela, horrenbeste maitatua izatearen kontraesan mortifikagarria oihukatzen du. Hari, emakumeari, ez dio axola. Bere mingaina bestelako emagune horretara jaisten da, azal azpitik desagertzen den horretara iristen da eta gero mantso berriro igotzen da bere ahoan heldu eta eutsi arte lehenago utzi izan duena. Etengabeko xurgapen mugimendu batean irentsita izateko zorian atxikitzen du. Gizona jada ez da ezertan ere saiatzen. Begi itxiak. Bakar. Keinurik gabe, oihu egiten du.

Han goian, oihua, auhena zo-

rrotzagoa da, ia haur batena beza-
lakoa hasieran eta berehala barren-
du, sakondu egiten da, hain era
mingarriaz ezen emakumeak harra-
pakina askatu behar baitu. Askatu
egiten du, aldendu egiten da, izte-
rrak berarengana gehiago hurbildu,
bereizi egiten dizkio eta usain heze
eta epela hartzen du. Luzamendu-
tan dabil, aurpegia gizonak beraz
inoratzen duen horretan duela,
usain kiratsua hartzen du luzeki.

Emanda ikusten dut eta emaku-
mearekin batera begiratu egiten
duela berriro ere. Bere ahaleginetan
behutzen diola, ahal zaion neurrian
amore ematen duela emakumearen
aurrean. Bera den gizon hura gose-
ti hari eskaintzen diola. Orain ema-
kumearen ilean ari da hori taupaka

beti ere bihotzaren gorakoekin bat.

Gizonak zorion auhen jasanezina oihukatzen du leunki.

Zerua ate irekitako laukitik pasatzen da emeki. Osoa badoa, lurraren lastertasun motelaz esango genuke. Eredu finkoko hodei multzoak eremu ezin zabalagorantz dira eramanak.

Ahoa irekita, begiak itxirik, gizonaren haitzuloan dago, berarengana erretiratu da, berarengandik urruti, hura bakarrik, gizonaren gorputzaren iluntasunean. Ez daki oso ongi zer egiten duen, ezta zer esaten duen ere, oraindik beste era batez berriro egiterik badagoela uste du. Muin egiten du. Usain kiratsua darion lekuan muin, lami-katu egiten du. Gauzak izendatzen ditu, irain egiten du, laguntzeko hi-

tzak oihukatzen ditu. Eta gero berrriro isiltzen da, baita sumindu eta, ankertu ere indar guztiaz gizonaren eskuek atzera eta lurrera bota arte. Gizona berarengana doa. Etzan egiten da denbora luzez beraren gainean, penetratu egiten du, oraindik ere hor darrai, mugimendurik gabe, emakumeak negar egiten duen bitartean.

Gozatu berriak dira. Elkarrengandik urrundu dira. Denbora luzez, lurrean, elkarren ezertxo ere ez dute ikutzen. Solairu lauzak hotz daude, freskagarriak. Oraindik ere negar egiten darrai aldizka, neskato negarrak.

Gizonak bira ematen du berarengana emeki eta hankaren bidez berekin hartzen du. Horrela geratzen

dira. Bera maitatzeari utzi nahi izango ziokeela esaten dio. Emakumeak ez dio erantzuten. Egunen batean hil egingo duela esaten dio.

Gorputz desegindakoen nahaste eta gelditasunaz beste ez da gertatzen hitz hori izan ezik, berriro ere gizonak esaten diona, amaierarik ez duena.

Etzanak dira korridorean loak hartuak izango bailiran beste gauza bat hasten den bitartean desiraren igoaldi geldoan. Ia somatzen ez diren keinuez berriz elkartzen dira. Larruak, elkar ikutzen duten izerdiak, aurpegiak, emakumearen ahoa, gizonak berriro aurkitua. Horrela geratzen dira, jota, zain. Eta gero emakumeak ukabilkatua izan nahi duela esaten du, aurpegian dio, eskatu egiten dio, hator. Gizonak ho-

laxe egiten du, badator, haren ondoan eseri eta berriro begiratzeko dio. Emakumeak dio: ukabilkatua, gogor, arestian bezala bihotzean. Hil nahi izango zukeela dio.

Hona hemen, ate irekitako laukia jotzera doan gizonaren gorputz eseriak hartua.

Zehaztugabeko eremu ezin zabalagotik lainoa badator, more kolorea kausitua jada beste ibaietan, beste lekutako bideetan, euriaren montzoi urrun-urrunetan.

Gizonaren eskuak gora egiten du, behera gero eta zaplastatzeari ekiten dio. Emeki hasieran, elkorki ondoren.

Eskuak ezpain txokoen kontra zaplastatzen du eta, gero eta indar-

tsuago, hortzen kontra egiten du. Emakumeak baietz dio, hori dela. Aurpegia goratzen du eskukal-dietara hobeto eskaintzearren, naitu egiten du gehiago, eskuaren alderago, materialago.

Hamar bat minuturen ondoren biak batera zehaztasun paraleloan kokatuak ziratekeen. Gero eta indartsuago jotzen du.

Eskua behera jaisten da, bularretan jotzen du, gorputzean. Emakumeak baietz dio, hori dela, bai. Bere begiei negarra darie. Eskuak jo, ukabilkatu egiten du, gero eta irmoago abaila mekanikoa hartzen ari dela.

Aurpegia adierazkortasunik gabe gelditu da, txorabiatua, dagoeneko ez dio ezeri eusten, laxatua, lepo

inguruan mugitzen da nahierara gauza hila bezala.

Gorputzak ere zafratua izan dadin amore ematen duela ikusten dut, guztiz emanda dagoela, min guztietatik kanpo. Gizonak iraindu eta jo egiten duela. Eta gero oihuak bat-batean, beldurra.

Eta gero ikusten dut biak isiltasunak murgilduak dituela.

More kolorea badatorrela ikusten dut, ibai ahora heltzen dela, zerua goibeldu egin dela, gelditu egin dela bere ibilaldi mantsoan eremu neurrigabeari buruz. Beste batzuk begiratzen dutela ikusten dut, beste emakumek, orain hilak diren beste emakume batzuk ere begiratu dutela era berean udako montzoien sortzea eta desegitea

arrozti itzaltsuez inguratutako ibaien aurrean, ibai aho zabal eta sakonen aintzinean. More koloretik udako ekaitz bat badatorrela ikusten dut.

Ikusten dut gizonak negar egiten duela emakumearen gainean etzanda. Ez dut emakumeaz geldikortasuna baino ezer gehiago ikusten. Inoratu egiten dut, ez dakit ezer, ez dakit lotan dagoenentz.



